


LIBURUAK

EMAKUMEA / HILEROKOAREN ZIKLOA / AUTOEZAGUTZA



Lilith-en altxorra (pvp 15€)

(Sexualitateari, plazerra eta hileko zikloari buruzko ipuina)

Ba ote da ipuin bat baino modu hobegorik, neskek beren burua ezagutu eta maitatzen ikasteko?

“Lilith-en altxorra neskek txiki-txikitatik beren burua maitatu, baloratu, zaindu eta beren gorputza errespetatzen ikasteko baliabide ederra da. Menstruazioa,

plazerra eta sexualitatearen ikuspegi baikorra izaten laguntzen die, eta era berean, autoestimua indartzen” Maria Rosa Casanovas- Terapeuta, hezitzailea eta Alegria programaren koordinatzailea (Haur eta nerabeen emozioen garapenerako eta autoestimurako hezitzaileen formakuntza).

Haur, mutil eta gizon guztiek emakumeen sexualitatea lagundu eta maitatzeko, ezagutu eta ikasteko ere balio du liburu honek.

EDOSKITZEA / HAZKUNTZA



Ongietorri zure bizitzaren lehen urteetara (pvp 15€)

A ze gogoia geneukan halako haurtxoen album bat egiteko. Ez, ez dugu ezer asmatu, baina polita egin nahi genuen, ezberdina, batere ez kurtsia, erabilerraza, baita jostagarria ere. Bere bizitzaren lehendabiziko urteak gordetzeko modu ezinhobea da, handitan une horiek biziberritu ahal izan ditzan, errepikaezinak baitira.

Nire haurdunaldiaren egunerokoa (pvp 15€)



Eguneroko honetan dena gogorarazteko moduko espazioa dago: ona, txarra eta halaholakoa; aspergarria eta dibertigarria; serioa eta arina; politikoki zuzena eta... baina hori jada barnealderan ikusi beharko duzu. Goza ezazu Nire haurdunaldiaren egunerokoarekin: eguneroko errealista, samurra, baina batere, batere txepela ez dena.



Gurasoei gutuna (pvp 15€)

Liburu hau, bihotzeraino heltzen diren gutunez osatutako bilduma bat da. Azken lau urteotan GURASOEI GUTUNA idazlan laburren lehiaketan parte hartu duten ehunka gutunen artean aukeraketa zail baten ondoren, gutun sakonenak, gutun sentituenak, aukeratu ditugu. Emozio eta sentimenduen lanketa burutzeko material baten aurrean zaude; bakarka aurrea, eta konpainian ondoren, gutunak banan-banan irakurri eta eragiten digutena aztertzea gonbidatu nahi zaitugu. Seme-alabekin, edo ikastetxean ikasleekin, emozioak eta sentimenduak lantzeko ate berri bat ireki berri duzu. GURASOEI GUTUNA ekimena, auto-istripuz galdu genituen gurasoei idazteko aitzakia moduan sortu zen 2013. urtean. Urte horretan, gure gurasoek istripua izan zuteneko 15. urteurrenean, omenaldi bat egiteko asmotan jarri genuen martxan idazlan lehiaketa hau. Hitz batean esanda, gurasoei esan nahi dizkiegun hitzak gutun laburren bidez adierazteko aukera da GURASOEI GUTUNA ekimena. Juanita Amundarain Otegi eta Juan Miren Mendizabal Benito. Zuentzat eta zuengatik. Gure gurasoengandik hasi eta besteen gurasoenganaino. Besterik gabe, gozatu, dastatu, ikasi, eta sentitu hemen barruan aurkituko duzuna.

UMEENTZAKO IPUINAK



Neskak eta mutilak (pvp 16€)

Munduan neska eta mutil asko daude. Milioika. Eta ez daude bi berdin. Norbera bere erara da neska edo mutila. Badira ile luzea daramatenak, eta baita motza daramatenak ere. Belarritakoak daramatzatenak, eta ez daramatzatenak. Neska asko printzesaz mozorrotzen dira, eta zenbait mutil ere bai. Eta badira pirataz mozorrotzen diren neskak, mutil asko bezala. Neska bakoitza neska da, bere erara. Mutil bakoitza mutila da, bere erara. Eta bai ederra norbera den bezalakoa izan ahal izatea!



Isuri gabeko malkoak (pvp 15€)

Liburua gaztelaniaz irakur dezakezu alde batetik eta euskaraz bestetik irekitzen baduzu. Bere orrialdeetan badakigu Ottori beti esan izan zaiola negarra egokia ez dela, hori egin nahi duen bakoitzean erremediatu behar duela. Horrela, negar egiteko gogoia sentitzen duen bakoitzean, hori ez egiteko esaten zaió. Horrela, sentitzen duguna adierazteak nor garen


bihurtzen gaituela ezagutzen dugu: ez ahulak ez sendoak ... aske!



Zergatik? (pvp 14€)


Zergatik ez da istorio arrunt bat. Normalean ipuinek egitura berdina izan ohi dute: hasiera, korapiloa eta akabera. Baina honek ez dauka korapilorik. Sekuentzia moduko bat da. Aldi guztian errepikatzen da galdera bat eta erantzun bat. Haur eta amonaren arteko galdera-erantzunak dira. Haurrek askotan galdetzen dute zergatik hau, zergatik bestea... Hori irudikatu nahi zuen istorioak baita nire marrazkiek ere. Album ilustratu

bat da. Baina, horrek ez du esan nahi edozeinek irakurri ez dezakeela. Isterioa haur batek egiten dituen galderak dira, baina amona ere hor dago eta amona pertsona heldu bat da. Amonendako oso erakargarria gerta dakieke liburua. Baita haurrentzako ere. Edonork irakurri dezake!




Hutsunea (pvp 24€)

Juliak zulo handi bat dauka, eta ez du atsegin. Horregatik, modu askotara etetzen aiatzen da, desager dadin. Lortuko ote du? Topaketaz beterik dago bizitza. Galeraz ere bai. Batzuetan, galera horiek ez dira arrantzitsuak, arkatza edo paper bat galtzean bezel. Baina, beste batzuetan, garrantzitsuak dira, asmo bat edo osasuna edo maite duzun norbait galtzean bezala.



“ADOS” (pvp. 14€)

Gogoa eta Gosea antzekoak badira ere, ez dira guztiz berdinak. Gogoa norberaren buruaren barruan bizi da. Gosea, ordea, norberaren sabelaren barruan! Baina batzuetan elkarrekin entzuten ditugu eta nahastu egiten gara.




Orain ez, Beñat (pvp. 14€)

Zure semeak munstro batek jan egin nahi duela esaten badizu, zer egingo zenuke? Ipuin klasiko honek, berrogei urte eta gero, ez du gaurkotasunik galdu. Irakurri beharrekoa (in)komunikazioaz gogoeta egiteko


Munduko etxerik handiena

Leo Lizaras



Munduko etxerik handiena (pvp. 15€)

Barraskilo batzuk aza goxo batean bizi ziren. Etxeak gainean zeuzkatela, poliki mugitzen ziren hosto batetik bestera jateko mokadu bigun baten bila. Egun batean barraskilo txiki batek esan zion aitari: handitzen naizenean munduko etxerik handiena eduki nahi dut...



AMA (pvp 15€)

Amatasuna arte eta poesiaren bitartez, samurtasunaren eta joritasun koloretsuaren eskutik. Kantu unibertsal bat maitasunari eta bizitzari bere osotasunean, gizakiarengandik eta inguratzen gaituzten izaki guztiarengandik hasi eta Ama Lurrerainokoa.

“CUSCUSIANOS”



INA Creador de Historias (II) / Istorio sortzailea

(berez, gaztelaniaz dauka sarreratxo bat, baina, testurik gabeko jolasa da euskaraz edota beste hizkuntzan erabili daitekena)

(pvp 16€)

Ipuin sortzailea da. Bere formatatik abiatuta, konposizioak sortu, pertsonaiak asmatu, txotxongiloak bezala erabili, atzeko planoak diseinatu edo forma berriak moztu eta horrekin guztiarekin, istorio zirrargarriak, dibertigarriak, enigmatikoak, misterioitsuak, absurdoak imajinatu ...

INA hiru joko batean daude: 1) Zure istorioak sortu, kontatu eta animatzeko 2) Gainera, kolore biziko konposizioak sortzeko aukera ematen du, irudi berriak edo pertsonaia desberdinak asmatzeko 3) Puzzle bat da

INA sormena, irudimena eta elkar-eragina bultzatzen ditu.



Pillut. Zurekin hazten den jolasa. (pvp 15€)

(berez, gaztelaniaz eta katalanieraz ditu arauak, baina, testurik gabeko jolasa da euskaraz edota beste hizkuntzan erabili daitekena)

Pillut 3 urteko haurrentzako karta joko barregarria da. Hain erraza da jolastea non minutu bat baino gutxiagotan bere arauak ikasi ahal izango dituzu. Eta onena da familia osoak, txikienak ere, elkarrekin jolastu eta oso ondo pasatu dezakeela.



HOUSELAND (pvp 14€)

(berez, gaztelaniaz, katalanieraz eta ingelesez ditu argibideak, baina, testurik gabeko jolasa da euskaraz edota beste hizkuntzan erabili daitekena)

Sormen liburua da, etxea eta eraikinak koloreztatu, pertsonalizatu, muntatu eta haiekin zure herria edo hiria eraikitzeko. 30 etxe ditu! Bi tamaina desberdinetako etxeak daude, 10 zuriak eta 20 kolore desberdinetakoak.



Creador de Cuscusian*s (pvp 18€)

Cuscusianoen sortzailearekin batera espiral magikoetatik pertsonaia harrigarriak sor ditzakezu.

Bere 4 gurpilek eta bere hiru oinarriek mila era desberdinetan konbinatzeko aukera ematen dizute emaitza zoragarriak lortuz! Hain adiktiboa da, hasten zarenean ezin duzu gelditu!

MINIAK (1,50€/alea)



KarmeLe

Nor da KarmeLe? Zaintzaile bat? Konpontzaile bat? Agian erizain bat? Edo jakintsu bat?




Kolore hiria

Vega eta Azeri herri gris batean bizi dira. Baina egun batean kamiseta oso berezia daraman atzerritar bat ezagutu eta Kolore Hiria eramango dituen bidaia egitea erabakitzen dute. Lortuko al dute Vegak eta Azerik euren mundu polita are politago bihurtzea?




Sagarrondoa

Hau sagarrondo baten istorioa da. Jaio, hazi egiten den sagarrondoarena. Berau zaindu eta babesten duen familia baten istorioa ere bada, eta horren truke naturak ematen digun guztiarena ere bai.




Hartz izozkizalea

Kamil hartza bakarrik bizi da mendian. Egun batean, familia bat ikusi zuen basoan jaten, eta lurrian geratutako janari apurren artean, izozki zati bat probatu zuen. Norena da janari gozo-gozo hori? Non daude gehiago? Nor da haur hori?




Hemen nago

Lau urteko mutiko bizi-bizia da Denis, eta anaia handia da orain. Jendeak esaten dio anaia txikia zaindu behar duela, eta gurasoei lagundu ere bai. Hala ere, lau urte besterik ez ditu Denisek, eta bihurrikeria batzuen bidez esangu du benetan zer behar duen.



Kilika

Guztiok sexualitatearekin dugun lehenengo harremana gure gorputza aurkitzearen bidez gertatzen da. Haurrek elkar ukitzen dute. Elkar ukitzen dugu. Garrantzitsuena elkar ondo ukitzea da: pribatutasunean, esku garbiekin eta guk (ez beste pertsona batzuekin). Hala azaldu du *Kilika*, Mamen Jiménez sexologoa, psikologoa eta ama, *La Psicomami* izenarekin ere ezaguna dena eta *Amor con ojeras* sortzailea. *Kilika* bizpahiru urteren ondoren irakurtzeko liburu ona da, gogor ukitzen eta jendaurrean hasten direnean ... ops!



Amona eta liburuak

Liburuxka honetako protagonistek idatzi egiten dute, irakurri, behatu, entzun eta ingurukoekin hitz egin, baita urrun daudenekin ere. Elkarrekin ehuntzen dute pentsamenduen eta ilusioen sarea, eta gutun batean sartu.




Kutxa

Marcek armiarma bat aurkitu du aitona-amonen etxeko jostailuen kutxan. Armiarma bizi da kutxan orain. Ondo irudituko al zaio Marci? Ados jarriko al dira elkarrekin jostatzeko?




Kaxa misteriotsua

Adur, Jon eta Intza jakin-minez daude: zer ote darama bizilagunak egunero kalerakoan gurpiletan arrastaka kaxa horren barruan? Irudimena erabiliz, hiru anai-arrebak erantzunaren bila hasiko dira.



Kale Nagusia

Nor bizi da eraikin honetan? Familiak, norbanakoak, lagun taldeak, hango eta hemengo jendea... Alimaleko auzoa osatzen dute.



Otso ankerra

Familia seriea amarekin hasi genuen (ezin zen bestela izan) eta aitarekin jarraitu dugu (bistan da).

Aita, barkatu, otso bat, bi seme-alaba eta arratsalde osoa aurretik... Gozamina bermatuta dago!

Oharra: Mini hau egokia da guraso bakarreko, dibortziatuko, ezkonduko, berriro elkartutako, biologiko, adopzio,

heterosexual eta homosexualentzat.



hazten, baina tira...

Aitonaren lorontzia

Familia istorio hau samurra eta atsegina da. Mini honen autorearen aitona eta ilustratzaileak istorio hau asmatu zuten bere irudimena bultzatzeko. Egileak eta ilustratzaileak esan dute lortu dutela, eta lotura ere indartu dutela.

Orain Adrián Cordellatek eta Fernando Martinek historia gozo hau paperean adierazi dute. Ados, piruetak ez dira lorontzietan



Andre bastoiduna

Henriketa Saratxaga andra zahartzen ari da, eta egun batean jada ez da esnatu. Nolako bizimodua izan du? Eta nola oroituko dute bizi direnek?



Ekaitza dakar

Urtebete baino gehiagotan istorio hau kontatu nion alabari oheratu aurretik, izua eta, aldi berean, trumoiarekiko lilura sentitzen zuelako. Baina jada ez du beldurrik. Informazioa boterea da. Eta trumoiak nondik datorren jakiteak, gutxi gora behera, eta nola funtzionatzen duten jakiteak, asko lasaitzen du.



Lagunek ere liskarrak dituzte

Borrokak haur txikiaren eguneroko ogia dira. Normala! Ikaskideekin erlazionatzen ikasten ari dira. Istorio honen inguruko gauza interesgarria zera da: bi neskek beraien arteko gatazka nola konpontzen duten ikusi daiteke eta orrialdeetan zehar jelskeria, haserrea, tristura, bakardadea bezalako sentimenduak bizitzen dituztela, baita adiskidetzaren gozamen eta alaitasuna ere. Ez da beti funtzionatzen duen estrategia, ezta gauzak nola egin behar duten kontatzen duen liburu bat ere. Gure alaba eta bere lagun onenari batzuetan balio zaiena biltzen da hemen. Eta beste modu batean ezin izan litekeen bezala, liburuko elkarrizketak beraienak dira, hiru urte zituztenean. Horregatik bere liburu gogokoena hau dela uste dut (eta etxean elkar irakurtzen dute).



Itsasoko abeslariak

Agian sirenak existitzen dira edo, agian, Homero-k bale konkordun batzuk entzun zituen eta sirenak asmatu zituen... Konkordunak bale harrigarriak dira: itsasoaren azpian abesten dute, ito gabe lo egiten dute, hilabeteak pasa dezakete apenas jan gabe eta, hala ere, izugarriak dira. Ezagutu nahi al dituzu? Mini honetan ezagutuko dugu nola bizi den ugaztun animalia hau, janari bila iparraldetik hegoaldera ozeanoak zeharkatzen dituen eta etengabe abesten duena.




Luma

Liburu honetako protagonistaren amak mezu bat ematen dio eta aurrera eraman ahal izateko, Lumak bere beldur handiari aurre egin behar izango dio: bakarrik joan! bizilagunaren etxera. Lortuko al duzu? Luma istorio ederra da, maitasun handiz egindako ilustrazioek beste mundu batera eramaten gaituztenak.



Ama eta biok

Liburuxka hau familiaren inguruko lehen ipuina da eta bertan haur baten eta bere amaren arteko harremana kontatzen da. Hara zenbat gauza egin dezaketen haur batek eta bere amak elkarrekin!



Melenik Bilbora etorri da

Izaroren gelara ikaskide bat etorri da beste herrialde batetik, eta ez daki euskaraz edo gastelaniaz hitz egiten. Nola komunikatuko dira? Zer esan nahi die haur berriak? Jolasaren bitartez, elkar ezagutzen hasiko dira, adiskide egin eta elkar ulertu arte.




Azkura buruan

Zer dira zorriak? Nola jokatu haiekin? Mini ipuin honetan ikusiko dugu animalia horiek bisitan datozkigunean zer egin behar den: arropa garbitu, tratamendua egin, orrazi estua pasatu, xurgagailuarekin etxea garbitu eta alfonbrak astindu.



Nire tutua

Ipuin honetako protagonistak badu gustuko arropa bat egunero jantzi nahi izaten duena: tutu bat. Zenbat gauza egin ote ditzake tutua jantzita?



Bihotz handi-handia

Bidaia handien hasiera amets baten atzetik abiatzea izaten da. Unairen ametsa mundu guztia maitatzea da. Baina, nola lortuko du?



Paseoa espazioan

Zertan datza liburua? Eguzki sisteman, errima arinekin, haurrek gustuko dutenez.

Ama eta alaba batek ustekabeko bisita aurkituko dute lorategian: espazio-ontzi bat. Suzirian ibili ondoren, unibertsoan zehar ibiltzen dira eta eguzki sistema ezagutuko dute.


Jorratzen dituen gaiak: eguzki sistemako planetak.

Baloreak: oinarritzko astronomiari buruzko liburu informatiboa da. Erritmo arinak ditu planeten izena errazago gogoratzeko. Tipografia: letra xehez inprimatua



Txanpon bat patrikan

Nola gastatzen dugu dirua? Zer da gutizia eta zer premia? Eta norekin partekatzen dugu dirua? Istorio honetan ikusiko dugu familia batek nola heltzen dion eguneroko kontu horri.



Hitzak

Hitzak eta HITZAK daude. Hitz hutsalak eta hitz garrantzitsuak. Hitz bitxiak eta errepikatzen diren hitzak. Eta hitz gogokoak. Ume txikiek gogokoen dituzten horietako batzuk daude hemen, tipo askotako letrekin. Ezagutuko dituzte hitzak? Zirrimarratuko dituzte?




Tititxo

Mara triste eta haserre dago, amak ez diolako gehiago bularrik emango. Nola moldatuko da egunerokoa zuen ohitura hori gabe?




Haurrak oinez dabiltza

Liburu honetako protagonistak mahuka gabe igeri egiteko beldur izugarria du. Ahal izango ote du amaren eskuetatik uzten? Istorio honen orrialdeetan Victor nola hazten den ikusiko dugu, erronka berriei aurre egiten die eta gainditu ere bai. Denok zailtasunak ditugu egoera berriei aurre egiteko, baina beldurra gainditzen dugunean lortzen dugu!



Udaberria

Japoniako olerki tradizionalak dira *haikuak*, eta udaberriak pizten dituen emozioak erakutsiko dizkigute ipuin honetakoek, kardantxilo baten begietatik, animaliak eta zuhaitzak jaiotzen eta loratzen.



Negua

Japoniako olerki tradizionalak dira *haikuak*, eta neguak pizten dituen emozioak erakutsiko dizkigute hauek, animalia eta zuhaitz asko atsedean hartzen, indarberritzeko.